

IRUÑA

GIZARTE LARRIALDIKO KUTXA FINKORAKO DEIALDIA. 2016. URTEA

Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Zinegotzi Ordezkariek 2016ko urtarrilaren 14an emandako ebazpenaren bidez, diru-laguntzen deialdi hau onesten da:

Expte. nº SUBV_EVAL_INDIV/2016/3

GIZARTE LARRIALDIKO KUTXA FINKORAKO DEIALDIA. 2016. URTEA

Deialdi honen helburua da diru-laguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) atalean zehaztutako jarduketak egiteko, hala betez Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udalbatzak 2005eko azaroaren 3ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez hasiera batez onetsi baitzen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izango dira aplikagarri ([2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA

1 Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2 Organo emailea:	Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Zinegotzi Ordezkaria
3 Alor kudeatzailea:	Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Diru-laguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa

B. DEIALDIAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA

1 Deialdiaren xedea:

Gizarte zerbitzuen arloan diru-laguntzak emateko prozesua arautzea, diru-prestazioak zuzenean emateko gizarte-larrialdian egon eta diru-sarrerarik ez duten pertsona edota familiei, betiere deialdi honetako B.3) eta D ataletan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen badituzte.

“Zuzeneko diru-prestazioak” izena dute laguntza hauek. Unean unekoak dira, ez aldizkakoak, subsidiarioak eta osagarriak, eta oinarrizko beharrak asetzea dute xede.

2 Deialdiaren helburua:

Laguntza hauekin honako hau lortu nahi da:

- Eskatzaileek deialdi honetan jasotako arloetan dituzten beharrei aurre egitea.
- Baliabide profesional eta laguntza gisa jardutea Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorreko gizarte-programek eta -zerbitzuek egindako gizarte arloko esku-hartzeetan.

3 Baldintzak eta epea, diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jarrerak eta jarduerak egiteko:

Deialdi hau zuzenduta dago 2016. urte naturalean Iruñeko biztanle diren pertsona eta familiei diru-laguntzak ematera, baldin eta frogatzen bada pertsona edo familia horiek halako gabeziak dituztela diruari dagokionez, ezen eragozpen larriak baitituzte hala haien beharrak asetzeko ostatu, hornidura, elikadura, osasun eta gizarteratze arloetan nola haur-arrisku edo -babesgaberasuneko egoerak prebenitzeko baliabideak eskuratzeko; halakoetan, diru-prestazioen bidez, laguntzarako tresnak sortzen dira Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorreko programa eta zerbitzuek horretarako prestaturiko programa eta zerbitzuetako Gizarte Laneko profesionalen esku-hartzearen osagarri direnak.

Onartu eginen dira aurreko deialdian epearen barruan aurkeztu eta diru-laguntzarik jaso ez zuten eskaerak, baldin eta deialdi honetan galdatutako betekizunak betetzen badituzte.

Honako larrialdi-egoerak hartuko dira kontuan, jarraian deskribatutako baldintza eta kontzeptuekin bat:

a) Ostatua: Unean uneko diru-prestazioa, ostatuari eustea edo hori eskuragarri jartzea xede daukana, jarraian aipatu kontzeptuak ordaintzearen bidez:

a.1 Etxebizitzaren alokairua, etxebizitzaren hipoteka-maileguaren kuota edo etxebizitza partekatu bateko logela ordaintzea. Betiere, horrela ekiditen bada egoera larriago bihurtzea, etxebizitza edo hori ordaintzeko laguntza galtzeagatik. Nolanahi ere, justifikatu beharra dago larriagotze-egoera.

a.2 Etxebizitza berri baten alokairu-kontratua ordaintzea, betiere etxebizitza hori prestazioaren eskatzailearen ohiko eta benetako egoitza bada, hasieran ez-ohiko diru-kopurua ordaindu behar bada eta eskatzaileak bermatzen ahal badu modu errealista batez hortik aitzina ordaintzen ahal duela haren diru-baliabideekin etxebizitza berria. Hori horrela, etxebizitza berri bat eskuratzea sustatuko da baldin eta eskatzaileek bizi-kalitate hobekia badituzte etxebizitza berrian, halakoak ezen larrialdia eragin zuen egoera betikotzea edo mantentzea ekidinen baitute.

a.3 Aurreko kontzeptuei dagokienez, diru-prestazioa erabiltzen ahalko da, baita ere, auzo-erkidegoarekiko zorrak ordaintzeko, baldin eta horrela ekiditen badira gatazkak auzokideekin edo elkarbizitzarako zailtasunak.

b) Hornidurak: Ohiko etxebizitzarako hornigaien beharrak asetzera zuzendutako diru-prestazioak, honako hauen ordaintzearen bidez:

b.1 Ohiko etxebizitzaren hornidura-zorrak elektrizitate, gas/berokuntza, ur eta zabor-zerbitzuetan, bai eta horiei berriz ere heltzeak eragindako kostua, hornidura hori etenda bazegoen. Salbuespenez ematen ahalko dira laguntzak hornidura-gastuetarako nahiz eta zorra oraindik sortu gabe egon, baldin eta eskatzailearen zein haren familia-unitatearen egoera sozioekonomikoa dela-eta aurreikusten bada ezinen dietela aurre egin kostu horri.

b.2 Ohiko etxebizitza honako energia-zerbitzuez hornitzeko kontratuetan alta hartzeak eragindako gastuak: elektrizitatea, ura eta gasa.

c) Elikadura eta osasuna: Unean uneko diru-prestazioa, honako hauek asetzeko:

c.1 Oinarrizko beharrak familia-unitatea osatzen duten kideen eguneroko elikadura egokia eta norbere higienarako eta etxerako oinarrizko baliabideak bermatze aldera. Kontuan har daitezke, unean-unean eta salbuespenez, beste laguntzarik jaso ez duten eskola-jantokiko gastuak.

Elikadura eta higiena ikuspuntu prebentibotik eta hezitzailetik abiatuta kontuan hartuko dira, betiere irizten bazaio eskatzaileek ezin dietela aurre egin beren baliabideekin edo eskuragarri dituzten bestelako baliabideekin.

c.2 Laguntzak pertsonen osoko funtzionamendurako. Unean uneko diru-prestazioa pertsonen osoko funtzionamendurako beharrezko diren baliabideak eskuratzeko.

d) Prestakuntza eta gizarteratzea edota gizarteratzera/lanera bideratzea. Gizarteratzeko eta lanera bideratzeko laguntza. Unean uneko diru-prestazioak jasotzeko aukera egonen da, diru-laguntzen edo beken bidez, eskatzaileen gizarteratze edo lanera bideratzeko prozesuak ahalbidetzeko eta gizarteratzearen zein prestakuntzako jardura ez-arautuetan parte har dezaten posible egiteko, horiek baldin

badira haien bide bakarra prestakuntza jasotzeko edota Udalaren gizarte-zerbitzuekin adostutako gizarteratze edota gizarteratze eta lanera bideratzeko ibilbide pertsonalen parte badira.

e) Arrisku- edo babesgabetasun-prebentzioa haurtzaroan eta nerabezaroan. Adingabeei laguntza ematea haur-zerbitzuak eskuragarri izan ditzaten, hala nola Haur-eskolak, Haurtzaindegiak, Eskola-jantokiak, bateragarritasun-zerbitzuak, aisialdi eta denbora libreko jarduerak eta abar, baldin eta haien familiek ezin badituzte halakoak ordaindu osorik edo parte batean eta Udalaren gizarte-zerbitzuek prebentzio eta babes sozialeko baliabidetzat jotzen badituzte haurtzaroaren eta familien arloan beren beregi egiten duten esku-hartzearen barruan. Hori horrela, unean-uneko diru-prestazioak emanen dira beste prestazioek edo entitate publikoek diruz lagundu ez duten kostua estaltzeko. Diru-prestazioak aldea estaliko du eskatutako zerbitzuaren kostuaren eta entitate publikotik jasotako diru-laguntzaren artean, halakorik balitz.

f) Estaldura beste oinarrizko beharretarako. Unean uneko diru-prestazio hau aurreko ataletan jaso ez diren beste egoera batzuk arintzera zuzenduta dago, salbuespen-egoeraren eta familia unitateari eragiten ahal zaizkion kalte konponezinen arabera.

Diru-laguntza hauek xede jakina dute, eta hori gauzatzeko bakarrik erabili beharko dira.

Prestazio hauek aparteko izaera daukate, unean unekoak, ez-aldizkakoak eta beste prestazio batzuen ordezkakoak baitira. Baina zenbait kasutan beste diru-laguntzen osagarriak izan daitezke.

- Laguntza norberarena eta besterenezina izanen da, eta ezingo da trukatu, aldatu, hirugarrenei laga edo haren ordezkari ordainik jaso, ezertan eragotzi gabe laguntza kobratzeko eskubidearen lagapenari buruz ezarritakoa.

Diru-laguntzek aldi baterako konponduko dute sortutako krisia, eta epe laburrean emanen zaio konponbidea larrialdi-egoerari.

4 Baloratzeko baldintzak, bideak eta lehentasunak:

BAI EZ

Diru-laguntzak emanen dira deialdi honetan onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskabideak aurkeztu ahala, eta, betiere, eskabideari erantzuteko aurrekontu-izendapena egon bitartean. Diru-laguntzak emanen dira bakarrik baldin eta horretarako kreditu eskuragarririk badago indarra duen aurrekontuan.

Kontuan hartuko dira dira aurreko deialdian epearen barruan aurkeztu eta diru-laguntzarik jaso ez zuten eskaerak, baldin eta deialdi honetan galdatutako betekizunak betetzen badituzte.

Programa hauetan jasotako laguntzak eman baino lehen, Auzo-unitateko edo dagokion zerbitzuko gizarte-langileak proposamena aurkeztu beharko du eta gizarte arloko balorazioa egingen da honako hauek kontuan hartuta: elkarbizitza, egokiera, prebentzio eta premia arloetako irizpide teknikoak, egindako edo egiteke dagoen berezko gastuaren zenbatekoa eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzea.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEZKO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA

1 Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 400.000 €

Idatzi-zati honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-izendapena 2016an agortzen bada eta Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorrean aurtengorako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira gauzatu, jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira. Gehikuntza horren onuradun izango dira eskaera deialdi honekin bat eta diru-laguntzak eskatzeko epean aurkeztu duten eskatzaileak, baldin eta kreditua agortzean laguntzarik jaso

gabe geldituak badira.

Diru-laguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2 Aurrekontu-partida: 70/23110/480000

3 Banakako gehienezko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Diru-laguntza hauen onuradun izaera eskuratzen duten pertsona edo familia-unitate eskatzaileei kontzeptu bakoitzaren arabera edo horiek guztiak batuta ematen zaien gehienezko zenbatekoak ezin izanen du gainditu, oro har, urtean, Gizarteratze Errentaren hileko zenbatekoaren 1,2 edo Nafarroako Gobernuak eskatzailearen familia-unitatea zenbat kide osatzen duten eta horren arabera 2016. urterako ezarritako antzeko prestazioaren 1,2.

Salbuespen gisara, eta muturreko larrialdi egoera batean, kopuru hori handitu ahalko da, betiere kasuaz arduratzen den gizarte-langileak argi eta garbi justifikatu eta abalatzten badu.

Eskaera bakoitzari ematen zaion laguntza zehazterakoan kasuan kasuko beharraren arabera doituko da zenbatekoa, betiere oro har urterako ezarritako gehienezko kopuruaren barruan.

Eskaera bakoitzean, eskatzaileari eskatutako zenbatekoa emanen zaio baldin eta horrek ez badu gainditzen oro har urte baterako ezarritako gehienezko kopuruaren % 50.

Salbuespenez, baldin eta larrialdi-egoerak gastu handiago badakar –urteko gehienezko kopuruaren barruan–, gastu osoari egiten ahalko zaio aurre eskaera berean, betiere horretarako kreditu nahikorik egonez gero.

4 Hainbat urtetarako deialdia: BAI EZ

Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egongo dira.

5 Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	400.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa:	€
1. urtekoa:	€	3. urtekoa:	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1 Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izan daitezke diru-laguntzaren oinarri den egoeran dauden pertsona edo entitateak, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta idatzi-zati honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

Diru-laguntza eskatzen ahalko dute honako betekizun hauek betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetzako familia-unitateak:

1. 18 urtetik gorakoa edo adingabe emantzipatua izatea.

2. Iruñean benetan bizitzea eta bertako erroldan izena emana izatea, gutxienez, sei hilabete lehenagotik. Salbuespen gisa, eta beharra benetan larria denean, ez da antzinasuna kontuan hartuko, eta nahikoa izango da erroldan izena emana izatea eskaera egiteko unean.

3. Gizarteko esku-hartze prozesu batean engaiaturik egotea, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorraren programen eta zerbitzuen bidez.

4. Kontzeptu beragatik laguntza eskatu izana gainerako administrazioei; izan ere, deialdi honek arautzen dituen diru-prestazioak subsidiarioak dira. Nolanahi ere, laguntza hauek eskatu eta jasotzeak ez dakar berekin beste laguntzen ukatzea, horiek ere osagarriak baitira, lauki honen M) letran xedatutakoaren arabera.

5. Bizikidetzako familia-unitatearen baliabide ekonomikoek ez gainditzea deialdiaren C.3) idatzi-zatian prestazio honetarako ezarri den gehienezko zenbatekoa –Familia-unitatearen kide-kopuruaren arabera–, eta laguntza sozial edo familiarrik ez izatea egoerari aurre egiteko.

Bizikidetzako familia-unitatearen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko, haren kide guztien enpleguek eta prestazioek sortutako diru-sarrera garbiak hartuko dira kontuan.

Baldin eta eskatzaileak kapital higigarriak badauka eskuragarri, balorazio bat egingen da ikusteko hura erabilita aurre egiten ahal dion kasuan kasuko beharrari, eta, hala izanez gero, ulertuko da badituela baliabide nahikoak.

*Deialdi honen ondorioetarako, elkarbizitzako familia-unitate gisa hartzen da honako hauek osatzen dutena: ezkontideak, bikote egonkorak zein haien halako afektibitate-harremana dutenak, haien seme-alabak eta odolkidetasuneko 2. gradura bitarteko eta ezkontza-ahaidetasuneko 1. mailako senidetasun harremanaz loturiko gainerakoak, baldin eta etxebizitza berean bizi badira.

Nahiz eta eskatzailearen elkarbizitzako familia-unitatearen diru-sarrerak gutxiago izan laguntzak jasotzeko ezarritako mugako kopuruak baino, ulertuko da baliabide nahikoak dituztela kontuan hartutako berariazko gastuei aurre egiteko, eta, hartara, ezin izanen direla larrialdiko laguntzen onuradun izan, baldin eta egiaztatzen bada elkarbizitzako familia-unitateko kideetako batek ondasun edo zerbitzu batzuk erosi dituela edo ondasun batzuk mantentzeko gastuak dituela, halakoak ezen haiei aurre egiteko beharrezkoa bada aitortutako eta prestazioan jasotakoez besteko baliabideak edukitzea, betiere elkarbizitzako familia-unitatearen titularrak edo, bestela, edozein kidek ezin badu egiaztatu diru-sarrera horien jatorria dagoela bereak ez diren baliabideetan (diru-sarrera atipikoak).

Deialdiaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako baldintzak betetzen dituztela egiaztatetik:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) idatzi-zatian exijitzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, diru-laguntza eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta idatzi-zati honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

- a) Jasotako diru-laguntza erabiltzea hori zertarako eman eta xede jakin horretarako.
- b) Erreferentziarako langile teknikariekin adostutako helburua betetzea eta jarduerak edo egitekoak gauzatzea, diru-laguntza honen eskaeraren oinarri den egoera zuzentzeko helburuz.
- c) Baliatzea, dela dagokion ebazpena eman baino lehen dela laguntza jasotzen ari den aldi, eskatzaileari edo elkarbizitzako unitatearen edozein kideri egokitzen ahal zaion diruzko eskubide edo prestazio oro.
- d) Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo

baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari, hori jakin eta berehala. Eta, behar izanez gero, dirua itzultzeko aurrez sinatutako konpromisoa betetzea, jasotako zenbatekoa Iruñeko Udalari itzulita.

e) Diru-laguntzak eman dituen Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorraren organoaren aurrean justifikatzea baldintza eta betekizunak bete dituztela, bai eta jarduera egin dutela eta diru-laguntza zertarako den eta helburu hori bete dela ere.

f) Itzultzea oker jasotako prestazioen zenbatekoa edo oker jasotako kopuruak.

g) Udalaren aurrean agertzea eta hari laguntzea, halakorik eskatuz gero.

- Behar bezalako publizitatea egiteko betebeharra, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu dituela diru-laguntza jaso duten programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak: BAI EZ

Pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

Iruñeko Udalaren irudi instituzionala jartzea.

Legendak karteletan, inprimatutako materialetan, bide elektronikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.

Oroitzapen-plakak.

Aipamenak hedabideetan.

Beste batzuk:

- Diru-laguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluaekin bat: BAI EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

BAI EZ

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU

1. Eskabideak non aurkeztu:

Auzo-unitateetan edo, bestela, Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzuan eta beste udal-gizarte zerbitzuetan, deialdi honetan ezarritako epean.

2. Eskaerak noiz arte aurkeztu: Eskabideak aurkezteko epea Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean noiz argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta deialdiaren indarraldi osoa hartuko du. Deialdiaren indarraldiak 2016 urte osoa hartzen du, baldin eta aurkeztutako eskabideei erantzuteko aurrekontuko krediturik badago, eta C.1) atalean adierazitakoa ezertan galarazi gabe.

Aipatu epeetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskabideak interesdunek sinaturik –edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek– aurkeztu behar dira, deialdi honen I. Eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) idatzi-zatiak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde zurretik ebazpena emango delarik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio

Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordezkariaren aitortza aurkeztu behar da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, bost urte ez badira bete agiriari dagokien prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.

Aurkeztu beharko dituzte, baita ere, familia-unitatea osatzen duten gainerako kideen agiriak. Honako agiri hauetako baten fotokopia aurkeztu behar da: NANA/bizileku- edo lan-baimena/pasaporte/ familia-liburua/jaiotza-ziurtagiria.

b) Erantzukizuneko aitortza, deialdi honen II. Eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra exijitzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek exijitzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, agiri hauek:

Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

Eskatzailearen erantzukizuneko aitortza, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, hamabost eguneko gehieneko epean, aitortzean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioski egiaztatuko du interesatuak eguneko dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du.

Diru-laguntza honen xedea eta izaera kontuan harturik, EZ da eskatuko eskatzaileak c) idatzi-zati honetan adierazitako agiriak aurkeztea.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarrekin bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko diru-laguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuradunatzat joko dira. Nolanahi ere, elkarrekin ordezkari edo ahalgabetatuta izendatu behar da, eta ahalorde asketsia eman behar zaio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Aitortza bat, bertan adierazita beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatutara helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik dagoeneko jasotako diru-laguntzen zerranda eta eskatutako kopurua, entitateen izena eta jasotako zenbatekoa zehaztuz (ikus, behar izanez gero, deialdi honen III. Eranskina). BAI EZ

f) Memoria bat, diru-laguntza zertarako eskatu eta proiektu, ekintza, jarduerak edo programa hori deskribatzen duena.

g) Eskatzailearen eta bizikidetzako familia-unitateko kide guztien diru-sarrera guztien egiaztagiria (azkeneko hiru nominak, egonkorak ez direnean), pentsioak, prestazioak, etab. Diru-sarrerak etxeko langile kontratatuek eskuratuak diren kasuetan, behar bezala betetako lan-kontratua ez ezik, kontratugileen zinpeko aitorten bat ere aurkeztu behar da, jasotako diru-sarrerari buruz. Diru-sarrerak norberaren konturako langileek eskuratuak diren kasuetan, azken hiruhilabeteko BEZaren aitortpena ez ezik, eskatzaileak diru-sarrerari buruzko zinpeko aitortpena ere aurkeztu beharko du.

h) Eskatzailearen edota familia-unitatearen egoera sozial edota ekonomikoa egiaztatzeko beste agiri batzuk (aurrekontuak, fakturak, zorren egiaztagiriak, etab.), diru-laguntza jasotzeko beharrezkoak direnak.

i) Gizarte-txosten bat, Auzo-unitateko, Emakumeendako Udal Zerbitzuko edo Udalaren beste gizarte-zerbitzu bateko gizarte-langileak egina (III. Eranskinarekin bat).

j) Iruñeko Udalak diru-laguntza onuradunari ordain diezaion, eskatzaileak haren izenean duen banku-kontuaren zenbakia adieraziko du eskabidean, edo hala adostu baldin bada, eskatzaileak kobrantza-eskubidea deialdiaren V. Eranskinean jasota dagoen agiriaren bidez zer pertsonari edo entitate publiko edo pribaturi eman eta haren banku-kontuaren zenbakia.

Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileek erroldan izena emana duten edo elkarrekin bizi diren, halako moduz non eskabidea aurkezteak berak berekin ekarriko baitu Iruñeko Udalak datu horiek guztiak egiaztatzeko baimena, deialdi honetan jasota dagoenarekin bat.

Egoera jakin batzuk ezin badira berariazko agirien bidez egiaztatu, eskatzailearen erantzukizuneko aitorten bat aurkeztu beharko da.

(*) Deialdi honen ondorioetarako, atal honen e) letran eskatzen den informazioa deialdiaren II. Eranskinean dago jasota.

(*) Diru-laguntza honen xedea eta izaera kontuan harturik, ez zaio eskatuko eskatzaileari f) atal honetan adierazitako agiriak aurkezteko.

Agiriek jatorrizkoak izan beharko dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarrean dagoen legeekin bat kautoak diren kopiak.

H. PROZEDURA TRAMITATU ETA EBAZTEA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, eta horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) idatzi-zatian zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Halaber, ebazpen-proposamena emanen da Gizarte Ekintzako eta Garapeneko Alorraren programetako arduradun baten txostena ikusita. Gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatu ahal izateko, udal-gizarte zerbitzuetako Gizarte Laneko profesionalak ezagutu eta baloratu behar dute kasua, halako moldez non hori goian aipatutako kasuen artean sartu eta laguntza lehenik emateko proposamena egingen baitute.

2. 2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Ebatzi eta jakinarazteko epea bi hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Diru-laguntzak emateko ebazpenak dagozkien Auzo-unitateei edo udal-gizarte zerbitzuei jakinaraziko zaizkie. Diru-laguntzen gaineko ebazpena Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorreko Zinegotzi Ordezkariek onetsi beharko du.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak

eta, eskaera ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.
Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 58. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea abiatzeko data:

- Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartzen den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

I. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Argitaratzeko bidea:

Nafarroako Aldizkari Ofiziala. Iruñeko Udaleko iragarki-taula.

J. DIRU-LAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK

1. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diru-laguntzen xede den jarduerarekin ezberrik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) idatzi-zatian ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honi dagokionez, honako gastu hauek ahalko dira diruz lagundu: Ostatu, hornidura, elikadura, osasun, gizarteratze haur-arrisku edo -babesgabetasuneko egoerei eta abarrei aurre egitera zuzendutako gastuak, deialdi honen B.3) idatzi-zatian deskribatutako baldintzekin bat.

Deialdi honen B.4) eta C.3) idatzi-zatietan jasotako baldintzen arabera diruz lagundu daitezkeen kontzeptuaren edo kontzeptuen gastu osoa estaltzen ahalko da diru-laguntzarekin.

Diru-laguntzaren xede diren gastuetan, eskuratzeko-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen N.2) idatzi-zatian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua: BAI EZ

Ez dira inoiz ere diru-laguntzen xede izanen komunikazio- eta informazio-gastuak.

2. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: *Deialdi hau indarrean dagoen bitartean egiten direnak.*

K. AZPIKONTRATATZEA

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Portzentajea:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, atal honetan zehaztutako zenbateko edo portzentajearen. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diru-laguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

BAI EZ

Zenbatekoa edo portzentajea:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA

Udalaren diru-laguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Prestazio hauek Nafarroako Gobernuak ematen dituen aparteko laguntzen aurrerakinak izan daitezke, baldin eta kontzeptua Gobernuaren diru-laguntzen xede izaki, dirua berehala jasotzeko premia badago. Halako kasuetan, eskatzaileak dirua itzultzeko konpromiso bat sinatuko du (deialdiaren IV. ERANSKINA), eta haren bidez behartuta egonen da jasotako kopurua itzultzera behin Nafarroako Gobernuak aparteko laguntza eman eta gero.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo norberaren baliabideak gehituta, diru-laguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izango da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa frogatu baino lehen.

N. ORDAINKETA

1. Nola ordaindu: Diru-laguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa.

Ordainketa zatikatua.

Ordainketa aurreratua. Programako arduradunak eta Alorreko Idazkari Teknikoak oniritzia emanda (txosten bat ere eginen dute laguntza emateko ebazpenaren gainean), prestazioaren ordainketa tramitatuko da, "Kutxa Finkoaren" bitartez, gehienez ere 15 eguneko epean ordaintzeko, laguntza hauek berehala ematekoak baitira. Ordainketa diru-laguntza emateko ebazpena onetsi baino lehen ere egin daiteke, baldin eta organo emailea kutxa finkoko aurrerakinak ordaintzeko gaituta badago. Epea hasiko da kontatzen laguntza-eskaeraren egunetik aitzina.

Ordainketa mistoa (ordainketa zatikatua eta aurreratua).

Diru-laguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu onuradunei ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat

jotzen baditu.

Nolanahi ere, laguntza hauen izaera kontuan harturik eta lauki honen D.1) letraren azken paragrafoan ezarritakoarekin bat, azken betekizun hori bete gabe gera daiteke.

Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 33.4 artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat, diru-laguntzaren izaera kontuan hartuta, deialdi honetan salbuesten da Udalarekin kobratzeko dauden tributu-zorrak emandako diru-laguntzarekin kitatzeko aukera.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta diru-laguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik: BAI EZ

Justifikazio-kontu sinplifikatua

Gastuaren egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak

Moduluaren unitate-kostua

Gainerako inguruabarrak

Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateari dagokion organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistema bat: Diru-laguntza hauek ematen dira deialdian jasotako egoera jakin batzuk aintzat hartuta, eta akreditazio teknika besterik ez da eskatuko frogabide gisa. Akreditazio hori egiteko, eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira –deialdi honen G.4) idatzi-zatian galdatutakoarekin bat–, eskaria jaso duen gizarte laneko teknikariak egiaztatu eta balioetsiak; horri egoera eta dagokion eskaera justifikatzen dituen txosten teknikoak erantsi beharko zaio.

Nolanahi ere, laguntza guztiak gastuen eta ordainketen ziurtagiriekin justifikatu behar dira, Udalak egiaztatu dituzten. Izan ere, Udalak agirien laginketa baten bidez aztertu ahal ditu justifikazioak, bai eta beharrezko jotako egiaztapenak oro egin, laguntzaren xedea bete dadin.

2. Justifikazioa aurkezteko epea: Ez da bidezkoa

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK

Zilegi izanen da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –diru-laguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna, eta idatzi-zati honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ

P. ERREKURTSOAK

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK

Nolanahi ere, kreditu egoki eta nahikoa egon beharko da diru-laguntzak emateko, eta, horrenbestez, ezin izanen da ezein laguntzarik ematea onetsi 2016. urteko aurrekontua (luzatua edo behin betikoa izan) indarrean egon arte deialdi honi erantzuteko kreditu egoki eta nahikoaz. Halaber, ezin izanen da ez diru-laguntzarik eman, ez ordaindu laguntza hauen kudeaketari lotutako kutxa finkoaren aurrerakina onetsi gabe.

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEN AITORPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEN AITORPENA, XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.

III. ERANSKINA. GIZARTE TXOSTENA.

IV. ERANSKINA. ITZULKETA EGITEKO KONPROMISOAREN FROGAGIRIA.

V. ERANSKINA. KOBRAZTEKO ESKUBIDEA LAGATZEKO AGIRIA.